



ARANTZako UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

2019KO EKAINAREN 21EKO BILERAREN AKTA.

Deialdia: Lehenengoa.

Eguna: 2019.06.21.

Ordua: Arratsaldeko 18:30etan.

Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Dabid Iturria Almandoz jn.
Leire Mitxelena Gamio and.
Iñigo Sarrias Zoco jn.
Beñat Mitxelena Damboriena jn.
Imanol Lukanbio Larretxea jn.
Joseba Pikabea Iribarren jn.
Markel Jorajuria Elizondo jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Udala eratzeko eta alkatea aukeratzeko osoko bilkuraren akta irakurri eta, hala badagokio, onartzea.
- 2.-Udalbatza noizero batzartuko den erabakitzea.
- 3.-Informazio-batzordeak eratu eta osatzea.
- 4.-Udalaren eskumenean dauden kide anitzeko organoetara joan beharreko Udalaren ordezkariak izendatzea.
- 5.-Alkateordearen izendapena dela eta, alkateak erabaki duena adieraztea.
- 6.-Herriko Etxean eskailerak gainditzeko gailu bat jartzeko lanak.
- 7.-Bake Epategiko epaile titularra izendatzeko akordioa.
- 8.-Eskaerak eta galderak.

1.- UDALA ERATZEKO ETA ALKATEA AUKERATZEKO OSOKO BILKURAREN AKTA IRAKURRI ETA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA.

2019ko ekainaren 15ean egindako bileraren akta ikusi ondoren, ONARTU DUTE.

2.-UDALBATZA NOIZERO BATZARTUKO DEN ERABAKITZEA.

Udalbatza noizero batzartuko den proposamena alkateak egin ondoren erabaki dute ohizko bilkurak hilabetero egitea eta egiten den bileran hurrengoa zehaztea lanen txanden arabera.

3.-INFORMAZIO-BATZORDEAK ERATU ETA OSATZEA.

Eratu eta osatu beharrezko informazio-batzordeei buruz alkateak egindako proposamenaren arabera segidako informazio-batzorde izanen dira, bakoitzaren ondoan adierazitako zinegotziaren ardura izanen delarik:

- HIRIGINTZA: Iñigo Sarrias Zoco jn.
- MENDIA ETA AUZOLANA: Imanol Lukanbio Larretxea jn.
- KULTURA ETA KIROLA: Beñat Mitxelena Danboriena jn.
- OGASUNA: Markel Jorajuria Elizondo jn.
- KOMUNIKAZIOA ETA HEZKUNTZA: Joseba Pikabea Iribarren jn.
- INGURUGIRO, BASERRIGINTZA, TURISMO: Markel Jorajuria Elizondo jn.
- EUSKARA ETA JENDARTEA: Leire Mitxelena Gamio and.

4.-UDALAREN ESKUMENEAN DAUDEN KIDE ANITZEKO ORGANOETARA JOAN BEHARREKO UDALAREN ORDEZKARIAK IZENDATZEA.

Udalaren eskumenean dauden kide anitzeko organoetara joan beharreko Udalaren ordezkari direla eta, honako zinegotzi hauek izendatzea ERABAKI DU:

ERAKUNDEA

ORDEZKARIA

- Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatea: Joseba Pikabea Iribarren jn.
- Bortzirietako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea: Leire Mitxelena Gamio and.
- Bortzirietako Euskara Mankomunitatea: Leire Mitxelena Gamio and.
- Cederna-Garalur elkarte eta Uraren Bailarak batzordea: David Iturria Almandoz jn.
- Osasun Kontseilua: Iñigo Sarrias Zoco jn.
- Eskola Kontseilua: Joseba Pikabea Iribarren jn.
- UEMA: Imanol Lukanbio Larretxea jn. eta, ordezkoa, Beñat Mitxelena Damboriena jn.
- Pellettiki: Joseba Pikabea Iribarren jn.
- Liburutegia: Joseba Pikabea Iribarren jn.
- Udalbiltza: David Iturria Almandoz jn.
- Ehiza Batzordea: David Iturria Almandoz jn., Beñat Mitxelena Damboriena jn., Imanol Lukanbio Larretxea jn., Joseba Pikabea Iribarren jn. eta Markel Jorajuria Elizondo jn.
- Animsa: Iñigo Sarrias Zoco jn.

5.-ALKATEORDEAREN IZENDAPENA DELA ETA, ALKATEAK ERABAKI DUENA ADIERAZTEA.

Alkateak Iñigo Sarrias Zoco jauna lehendabiziko alkateordea eta Leire Mitxelena Gamio andrea bigarren alkateordea izendatu dituela jakinarazi du.

Udalbatza jakinaren gainean gelditu da.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
© 948 634 005
☎ 948 928 919
arantza.udala@arantza.eus
www.arantza.eus

6.-2017-2019 ALDIRAKO TOKI INBERTSIOEN PLANA: HERRIKO ETXEAN ESKAILERAK GAINDITZEKO GAILU BAT JARTZEKO LANAK.

18/2016 Foru Legearen bidez, abenduaren 13koa, 2017-2019 aldirako toki inbertsioen plana arautzen du.

Arantzako Udaleko Alkatearen 2017ko otsailaren 27ko 37. ebazpenaren bidez eskatu zen Arantzako Herriko Etxeko eskailerak gainditzeko gailu bat instalatzeko lanak aipatutako planean sartu eta diruz laguntzeko, prestatutako memoria baloratuaren arabera (Xabier Lopez de Uralde arkitektoak egina).

Toki Administrazioiko zuzendari nagusiak uztailaren 13an emandako 307/2017 Ebazpenaren bidez, onesten da 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planean Toki Programazioaren atalean sartutako behin-behineko zerrenda, zehazki "Udal ekipamenduak eraikuntzako arau teknikora egokitzeko Toki Programazioan" dagozkion inbertsioena eta konkretuki, Arantzako Udaletxean eskailera-igogailua ezartzeko lanak.

Ondoren, Toki Administrazioiko zuzendari nagusiak urriaren 16an emandako 413/2017 Ebazpenaren bidez, onesten da 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Planean Toki Programazioaren atalean sartutako behin betiko zerrenda, zehazki "Udal ekipamenduak eraikuntzako arau teknikora egokitzeko Toki Programazioan" dagozkion inbertsioena eta konkretuki, Arantzako Udaletxean eskailera-igogailua ezartzeko lanak.

Kontuan hartuz obra 2019. urtean egiteko sartua dela, gastuetako 1 9200 62200 partidarekin .

Ikusirik Igor Lopez de Uralde Gutierrez arkitektoak egindako proiektua.

Ikusirik Toki Administrazioiko Departamentuko idatzia, inbertsioaren plan berria onartzeko eskatuz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Arantzako "Udal ekipamenduak eraikuntzako arau teknikora egokitzeko Toki Programazioan" dagozkion inbertsioaren proiektua onartzea.

2) Arantzako "Udal ekipamenduak eraikuntzako arau teknikora egokitzeko Toki Programazioan" dagozkion inbertsioaren proiektuaren finantza plana berria onartzea:

-Obraren kostoa: 22.261,12 euro. BEZ barne.

-Toki Administrazioiko Departamentuko diru laguntza: 12.878,33 euro.

-Udaleko aportazioa: 9.382,79 euro: 7.417,22 euro 2019ko aurrekontutik (1 9200 62200 partidarekin) eta 1.965,57 euro Udaleko soberakinarekin.

3) Obra hau Udaleko errekurtsio propio edo soberakinarekin finantzatzea Nafarroako Gobernuko aportazioa ttikiagoa izanen balitz eta Udalak jarri beharrekoa aurreikusitakoa baino handiagoa.

5) Akordio hau Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioiko Departamentura bidaltzea.

7.-BAKE EPAITEGIKO EPAILE TITULARRA IZENDATZEKO AKORDIOA.

Arantzako Bake Epaitegiko epaile titularren agintzeko epea bukatu denez, berriro epaile bat izendatu behar da hurrengo lau urteetarako.

Ikusirik iragarkia 2019ko maiatzaren 13ko 91. Zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitatu zela eta bandoen bidez ere.

Ikusirik, epearen barne, Esther Burlada Arocena andreak aurkeztu duela eskaera. Aho batez, eta legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ERABAKI DUTE:

- 1) Arantzako Bake Epaitegiko epaile titularra Esther Burlada Arocena andrea izandatzea proposatzea.
- 2) Akordio hau interesatuari eta Nafarroako Auzitegi Nagusiko Gobernuko Idazkaritzara bidaltzea.

Bertzerik gabe, arratsaldeko 20:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
David Iturria Almandoz jn.

